

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiteko dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 887023.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/887023>.

MUSIKA, ARTE DRAMATIKO ETA DANTZA IKASKETAK EGITEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIAREN LABURPENA

Alkatearen otsailaren 12ko 33/2026 ebazpena, 2025-2026 ikasturtean musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiteko norgehiagoka bidezko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa.- Onuradunak

Musikako, arte dramatikoko eta dantzako ikasleek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta musikako, arte dramatikoko eta dantzako ikastetxeetan matrikulatuta badaude eta udalerrian gutxienez duela urtebetetik errolatuta badaude.

Bigarrena.- Xedea

Deialdiaren xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian errolatuta dauden eta musika hezkuntzako, arte dramatikoko eta dantzako ikastetxe ofizialetan ikasketak egiten dituzten pertsonen dirulaguntzak ematea, eta, aldi berean, jardueretan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzea.

Dirulaguntza jaso ahal izango dute honako ikasketak hauek:

– Musika: musika hizkuntza, instrumentua, harmonia modernoa, instrumentu taldea edo comboa eta ahots taldea.

– Arte dramatiko: antzeppen trebakuntza eta hobekuntza, antzerki zuzendaritzako ikasketak, eszenografia, luminoteknia, soinua eta jantziak eta, azkenik, zinema zuzendaritza.

– Dantza: dantza klasikoko eta garaikideko trebakuntza eta hobekuntza, eta koreografiako trebakuntza teknikoak.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran onetsi eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 75erainoko dirulaguntza emango da; gehienez 200,00 euro.

200,00 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ezingo da gainditu matrikularen prezioaren ehuneko 75.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2026ko uztailaren 1ean bukatuko da.

Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Ikastaroa egin den zentroaren egiaztagiria; datu hauek jaso behar ditu: hasitako eta amaitutako ikastaroa, ikastaroaren gutzizko ordu kopurua eta ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (gutxienez ehuneko 80ko bertaratzea), ikastaroaren hasiera eta amaiera datak eta ikastaroaren gutzizko kostua. Salbuespen gisa, eta udalbatzaren balorazioaren mende, ehuneko 80tik beherako bertaratze ehunekoa onartu ahal izango da osasun alarma egoeran.

Egindako ikasketen kostua ordaindu izanaren egiaztagiria.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE